

LEINTZ-GATZAGA / Zabalik daude ludoteka eta liburutegia

Asteazabaldutik aurrera, Garro jauregian, ate irekiak eginaz eta gustura hurbildu dira ume eta gaztetxoak bertara. Orain erabiltzaile izan gura dutenen izenak jasoko dituzte Gurel guraso elkarteak.

Hasi du ikasturtea Gurel guraso elkarteak. Orain arte legez, asteleheneetik egubakoitzera egongo dira zabalik bi orduz (17:00-19:00) ludoteka eta liburutegia.

Bi eta 12 urte arteko ume eta gaztetxoendako zabalduko dituzte, baina txikiak gurasoekin egon beharko dute. Ludotekan jolas egiteko gunea daukate herriko umeek, eta liburutegiak, osteraz, eskolako lantxoak egin, irakurri eta marrazkiak eta eskulanak egiteko aukera eskaintzen diete. Begirale lanetan bi lagun ibiliko dira aurten, tartean gatzagar bat: Garazi Orobengoa. Datozen egunotan elkartuko dira begiraleok Gureleko arduradunekin ikasturteko egitasmoa zehazteko. Laz hainbat berrikuntza egin zituzten zerbitzuak hobeto funtziona zezan eta berrikuntza horien balorazioa egindakoan erabakiko dute bide horretatik jarraitu edo ez.